



Sagardotegietarako garraio zerbitzu berriak.

📅 Urt 15, 2016 🕒 Sailkatu gabea 💬 0 comments



2016ko txotx denboraldian sagardotegietarako garraio zerbitzu berriak martxan jarriko dira: batetik, Astigarragako Udalak eta Behemendi Landa Garapen Elkartek Astigarragako erdigunetik sagardotegietarako doako garraio zerbitzua martxan jarriko dute; bestetik, Lurraldebus-ek zerbitzu berezia

eskainiko du.

Sagardotegietara doazen bisitariei erraztasunak emateko helburuz, Astigarragako erdigunetik sagardotegietarako doako garraio zerbitzua martxan jarriko da.

Zerbitzua astelehenetik larunbatera gauzez emango da **urtarrilaren 25etik apirilaren 23ra** bitartean eta doakoa izango da. 2 furgonetekin egingo da zerbitzua, 2 zonaldetan banatuta:

– **A Zonaldea:** Erdigunea-Sagardotegi zeharra-Santiagomendi bidea (Larrarte, Etxeberria, Oyarbide, Artola, Oialume, Zelaia, Gurutzeta eta Rezola): 9 sagardotegi.

– **B Zonaldea:** Erdigunea-Donostiako muga-Perurena bidea-Hilerria (Gartziategi, Lizeaga, Petrategi, Alorrenea, Astarbe, Zapiain, Irigoien, Bereziartua eta Mina): 8 sagardotegi.

Furgonetak erdigunetik sagardotegietara joan etorrian ibiliko dira lanzadera moduan lehenengo bi ordutan (20:00etatik 22:00etara). 22:00etatik 00:00etara, sagardogileen deiazen arabera, furgonetak sagardotegi desberdinetara joango dira, jendea Astigarragako erdigunera eramateko.

Geltokia Donostia Ibilbidean izango du (Pelotari Kalea) eta zerbitzuaren ordutegia honakoa izango da:

Egunak – Joan – Etorri

Astelenetik ostegunera: joan 20:00etatik 22:00etara eta etorri 22:00etatik 00:00etara
Ostiral eta larunbatetan: joan 20:30etatik 22:00etara eta etorri 22:30etatik 00:30etara

Zerbitzua Astigarragako 17 sagardotegi, Astigarragako Udala eta Behemendi L.G.E artean finantzatuko da.

Lurraldebus-en zerbitzu berezia

Lurraldebus-ek eskainiko duen A1 lineako zerbitzu berezia honakoa izango da: astelehenetik ostegunera Hernanitik Donostiarako autobus zerbitzu berezia izango da 23:30 eta 00:30etan.

Bestalde, A1 lineako gaueko zerbitzua eskaintzen jarraituko du ostiral eta larunbat gauetan Hernanitik Donostiara 23:30etatik 06:00etara bitartean.

Bilatzailea

	Bilatu
----------------------	--------

Kategoriak

Agenda

Argitalpenak

Azokak

Berriak

Ekitaldiak

Erakusketak

Esperientziak

Formazioa

Gastronomia

[Historia](#)[Kultura](#)[Lehiaketak](#)[Museoak](#)[Sagardoa](#)[Sagardotegiak](#)[Sagarra](#)[Sagastia](#)[Turismoa](#)

Artxiboak

Hautatu hilabetea ▼

LAGUNTZA

**SAGARDOAREN
LURRALDEA**
el territorio de la sidra

Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

LAGUNTZA BEHAR DUZU?

📞 943 550 575

JARRAI IEZAGUZU...



ESPERIENTZIAK

[Zure plana erreserbatu](#)[Neurrira egindako esperientziak](#)[Hautatutako ibilbideak](#)[Beste proposamenak hemendik gertu](#)[Nola mugitu](#)[Non lo egin](#)

SAGARDOTEGIAK

[Sagardotegia erreserbatu](#)[Sagardotegia aukeratu](#)[Garraioa sagardotegietara](#)[Sagardotegiaz goatzeko gomendioak](#)

SAGARDOETXEA

[Sagardoetxea – museoa](#)[Erakusketa eta bisita guneak](#)[Bisita motak](#)[Nola iritsi eta sarbideak](#)[Tarifak eta ordutegiak](#)[Bisita erreserbatu](#)[Bisita birtuala](#)

[SAGARDO FORUM](#)[AGENDA](#)[BLOGA](#)[HEDAPENA](#)[Informazio orokorra](#)[Boletina](#)[Argazkiak](#)[Buletinera harpidetza](#)[Hitzaldiak](#)[Sare sozialak](#)

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



© 2019 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua
LEGEZKO INFORMAZIOA

[NOR GARA](#)[PROIEKTUAK](#)[AKORDIOAK](#)[KONTRATATZAILEAREN PROFILA](#)